

Irailaren 17an HAZIA musikala estreinatuko da Arrasateko Amaia Antzokian

HAZIA musikala Arrasateko Esperientzia Kooperatiboaren sortzaile eta bultzatzailearen irudikapen artistiko bat da, eta, Arizmendiarieta Barinagan sortu zenekotik hasita, seminarioan, 1936ko gerrako giza urraduran eta bilakaera larrian, enpresen berpizkundean eta 1941ean Arrasatera iritsi zenean eratu zuen proiektio unibertsalean egindako bidea hartzen du.

Haren bizitzako gertakari eta egoera errealetan oinarrituta, eszenaratze artistiko musikala gure herriaren garapena markatu zuten ekintzekin lotura zuzena duten koreografiekin eta irudien ilustrazioekin janzten da.

*HAZIAk, gure zuhaitz sinboliko ugaltzailearen haziak, protagonistaren espiritua definitzen du. Fruitua lurretik sortzen da, kontzientziak altxatzen ditu eta bildu egiten gaitu. Gure gizon ekintzailearen antzera, zeukan identitate zigiluarekin, ametsen eraikitzaile eta gure etorkizunaren bultzatzaile. HAZIA musikalak ikusleei erantzunak ematen dizkie, eta emozioen ekintzarekin liluratuko ditu. Arizmendiarietaren historia historia bizia da, tokikoa eta unibertsala, ekintzak bultzatuta gure herriari sostengua eta lana eman dion gizon batena, eta haren sentipen kooperatiboa HAZIA musikalean islatuko da, "Ametsak eraikitzen" leloarekin, eta aldarrikapen honekin: *Beti Aurrera**

Musikala Arrasaten estreinatuko da, irailaren 17an, Amaia Antzokian, eta irailaren 18an ere toki berean ikusi ahal izango da, eta 16 eszenaz eta 22 abestiz osatuta dago. Gontzal Mendibilen zuzendaritzapean, 10 abeslari, 12 aktore, 11 musikari, 12 dantzari, Easo Abesbatza, Easo Eskolania eta Goikobalu Abesbatza arituko dira.

Bi egunetarako sarrerak daude salgai helbide honetan:

https://tickets.kutxabank.es/#/es/detalle/2209017Hazia@Janto_KB/AMARRASA

eta Arrasateko taberna hauetan: Ezkiña, Itsaslur, Kajoi eta Monte, eta ekitaldia hasi baino ordubete lehenago leihatilan.

Musikala Euskal Herrian zehar ibiliko da, eta hurrengo hitzorduak hauek izango dira:

- *Urriaren 1ean, Bilboko Arriagan*
- *Urriaren 29an, Iruñeko Baluartan*
- *Azaroaren 26an, Donostiako Kursaallean*
- *Abenduaren 17an, Gasteizko Principal Antzokian*

Goierriko eta Markinako data eta lekua zehazteke daude.

Arriagako eta Baluartekeo sarrerek ere salgai daude, esteka hauetan:

<https://www.teatroarriaga.eus/programacion/hazia-musikala>

<https://www.baluarte.com/cas/actualidad/obra-arizmendiarieta-musical-pamplona>

Aurki Kursaaalekoak eta Principal Antzokikoak jarriko dira salgai.

Elkartetik eskerrak eman nahi dizkiegu HAZIA musikalaren amets hau egia bihurtu duten guztiei, zehazki, proiektuan lagundu diguten babesleei, hau da: Arrasateko Udala, MONDRAGON, Laboral Kutxa, Eroski, Fagor Taldea, Ulma Taldea, Ausolan, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua, Konfekoop, Bizikoop, JMA, Jose Antonio Altuna, Eusko Jaurjaritza, SPRI, Nafarroako Gobernua, Gipuzkoako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Arabako Foru Aldundia eta Bilbo, Iruñea, Donostia eta Gasteizko udalak; alde batera utzi gabe komunikazioetarako lankidetzak: Eitb, Goiena, SER Euskadi, Onda Vasca, Naiz Irratia, Gara, Berria, Diario Vasco, Noticias de Gipuzkoa, TU Lankide eta Ibai-arte.

Informazio gehiago:

https://www.tulankide.com/eu/201carizmendiarieta-antzeztea-itzelezko-oparia-da201d?set_language=eu

https://youtu.be/NY7m_fIMzbl